



## TOLOSAKO UDALEAN GARATUTAKO MEMORIA ETA BIZIKIDETZA PROZESUARI BURUZKO MOZIOA

Bizikidetza lantzea Tolosako Udalean ordezkari dugun alderdi guztion nahi partekatua da. Adostasun horrek ahalbidetu du Tolosako memoria eta erreparazio gaietan beharrezko adostasunak lortzea herriko bizikidetzari ekarpena egiteko.

Tolosako herriaren memoria lantzeko Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearen bidez egin du lanketa eta funtsezkoa izan da Udalak Aranzadi Zientzia Elkartearekin egindako hitzarmena. Hitzarmen honen markoan Aranzadi Tolosan memoria berreskuratzeko eta ezagutzera emateko ondorengo ikerketa lanak egin ditu:

- 2011 urtean, *1936-1975 Memoriaren izenak: errepresioa eta giza eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta lehen frankismo garaian.*
- 2018 urtean, *Tolosa 1945-1975: giza eskubideen urraketak eta errepresioa diktadorea hil artean*

Egun, Aranzadi Elkarteko ikerlariak, 1960tik gaur arte izandako Giza Eskubideen urraketak eta bestelako sufrimenduak ikertzen ari dira.

Gaurko plenoan, memoria ikerketak instituzionalki balidatzeak duen garrantziaz jabetuta, Aranzadi orain arte egindako lanen balidazio formala burutuko dugu.

Bizikidetza lantzea alderdi guztion nahi partekatua izanik, elkarrizketa desberdinen ondoren 2016an, Tolosako Udalean Memoria eta Bizikidetza sustatzeko "alderdien bizikidetza mahaia" eratu zen. Mahaia honako oinarri hauetatik abiatu da: "indarkeria ikertzeko garaian behar den ezaugarri komun etikoa giza eskubide guztien errespetua da, inolako salbuespenik gabe. Giza eskubideak dira ekitatez lan egiteko dugun balizko erreferentzia bakarra. Biktima guztiek jasandako nahigabea eta urraketak errespetu berdinarekin tratatzea ahalbidetzen dute giza eskubideek, urraketan egileak edo biktimen ideia politikoak kontuan hartu gabe. Tolosan giza eskubideen urraketak jasan dituzten guztientzat egia, justizia, aitorza eta erreparazioa nahi dugu".

2016 urtetik aurrera Tolosako Udalak, azaroak 10, Biktima guztien memoria eguna, adierazpen eta ekitaldi bateratuak egiteko baliatu du. Abenduaren 10ean berriz, Nazioarteko Giza Eskubideen Eguna, "Bizikidetza Sustatzen" zikloak antolatu izan dira.

Azken urte hauetako prozesuak gure arteko ezagutza areagotu du eta modu askean hitz egiteko gune bat eraiki dugu. Horri esker biktimekin, presoekin edo memoriarekin loturiko gaiak modu diskretuan lantzeko aukera izan dugu. Hauek dira egindako ekitaldietako batzuk: 2019ko otsailean antolaturiko "Elkarri begira" egitasmo herritarrean ordezkari guztiok hitza hartu genuen biktimen aitortzaren eremuan gure konpromisoa adieraziz, urte berdineko abenduaren 10ean 12/2016 legerari eta horren baitan onartuak izan daitezkeen biktimei babesa adierazteko adosturiko adierazpen instituzionala edo 2021eko otsaileko plenoan dispersioaren inguruan aurkezturiko mozioaren onarpena.



Horregatik guztiagatik, Tolosako Udalak

**ERABAKITZEN DU:**

1. Aranzadi Zientzia Elkarteak ikertu eta idatzitako, *“1936-1975 Memoriaren izenak: errepresioa eta giza eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta lehen frankismo garaian.”* izeneko argitalpenari, balidazio instituzionala ematea.
2. Aranzadi Zientzia Elkarteak ikertu eta idatzitako, *“Tolosa 1945-1975: giza eskubideen urraketak eta errepresioa diktadorea hil artean.”* izeneko argitalpenari, balidazio instituzionala ematea.

Tolosan, 2023ko maiatzaren 24an

EAJ-PNV

Olatz Peon Ormazabal

EH Bildu

Andu Mtz. de Rituerto Arregi

PSE-PSOE

Jose Mari Villanueva Telleria